



EGK-k ostiralean gazteak eta eragile sozialak bakearen gainean hitz egiteko elkartzen dituen dokumentala aurkeztuko du Bilbon

- **Ekitaldia Bilboko Azkuna Zentroan (Alhondiga) egingo da** 17.30etatik 20.30etara, bi zatirekin: dokumentala ikustea eta gazte eta eragileen arteko dinamika bat
- Aurkezpenean **dokumentalean agertzen diren eragile gehienak** (biktimak, kazetariak, biktimarioak, historialariak, kargu publikoak, kultur eragileak...) **egongo dira** eta ostiralean ere beste 20 gonbidatu etorriko dira, **gaur egungo euskal gizartearen pertsona erreferenteak direnak**
- Azkuna Zentroan **dokumentalean agertzen diren gazteak egongo dira** eta parte hartu nahi duten beste gazte oraindik izena eman dezakete: **gazteen ikuspuntutik bakea eta bizikidetzaren lantzeko aukera paregabea izango da**
- Dokumentalean agertzen diren ideiak, hausnarketak eta irudiak 2015eko urrian Arrasaten egindako **Bakehizketak topaketan jaso ziren**

Bilbao, 2016ko otsailaren 8a. Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK) gazteak eta eragile sozialak bakea eta bizikidetzaren gainean hitz egiteko elkartzen dituen dokumentala aurkeztuko du ostiral honetan, arratsaldean. Aurkezpena Bilboko Azkuna Zentroko (Alhondiga) CAC2 espazioan izango da 17.30etatik aurrera eta ekimenak bi zati izango ditu:

- **17.30-19.00:** EGKren ongi etorria, 30 minutuko iraupena duen dokumentalaren aurkezpena, parte hartu zuten gazteen hitzak eta parte-hartzaileen galdera irekiak.
- **19.15-20.30:** Dinamika parte-hartzailea, 40 gazte eta 40 eragileekin, gazteok etorkizun baketsu baten aurrean ditugun erronkak identifikatzeko. Parte hartu nahi duten gazteentzat azken lekuak eskuragarri daude; izena ematea doakoa da, Bilbora hurbiltzeko garraio publikoa ordaintzen da eta [formulario hau bete](#)z egin daitezke. Dударik gabe, ostiralekoa gazteen ikuspuntutik bakea eta bizikidetzaren lantzeko aukera paregabea izango da.



Bakehizketak EGK-k antolatu zuen esperientzia pilotua izan zen, asteburu bateko elkarbizitza, 2015eko urrian Arrasaten egindakoa. Topaketan hogeitaz talde anitzak parte hartu zuten eta, maila berdinean, euskal errealitatearekin harreman zuzena duten pertsonekin elkartzeko aukera izan zuten, esparru eta sentsibilitate guztietakoak: kazetariak, biktimak, biktimarioak, historialariak, kargu publikoak, kultur eragileak... Asteburuan zehar, bakea eta bizikidetzarekin lotura duten bost gai jorratu ziren:

- Kontakizuna eta memoria, historiarekin bat ala kontra?
- Emakumea eta gizona, berdina al dira gatazka eta haren ondorioen aurrean?
- Presoen barne prozesuak: emozioak eta erabakiak nola kudeatu?
- Komunikabideen erronka: iragana eta etorkizunaren arteko giltzarria.
- Kultura eta hezkuntza: etorkizun baketsua eraikitzeke hegoak.

Atxikituriko eskuorrian, Bakehizketetan parte hartu zuten gonbidatuen zerrenda osoa ikus daiteke; gehienak ostiralean egongo dira eta antzeko profilak dituzten beste askok aurkezpenean ere parte hartuko dute.

Dokumentalaren trailerra, bi minutukoa esteka honetan ikus daiteke eta horren jarraian egindako dinamiken beste bost bideo txiki agertuko dira:

https://www.youtube.com/playlist?list=PLTm5VKd3H-p8C5Ju6Ws0q_VAZ6G3f1wqy

ERRAZTASUNAK KOMUNIKABIDEENTZAT

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak ahal diren erraztasun guztiak emango ditu ekitaldiaren zabalpena emateko:

Ostirala baino lehen:

Elkarrizketak egin ahalko dira EGK-ko antolatzaileekin edo dokumentalean agertzen diren eragile edo gazteekin. Telebistarako bada, dokumentalaren irudiak bidaliko dira.

Ostiralean:

Aurretik adostuta, elkarrizketak egin ahalko dira EGK-ko antolatzaileekin edo dokumentalean agertzen diren eragile edo gazteekin (hau adostu beharko da eta nahi duenak ekitaldia hasi baino lehenago etorri beharko da) eta 17.30etatik aurrera aurkezpenaren jarraipena ere egin ahalko da gehienez 19.00ak arte eta honen komunikabideentzat gordetako txoko batetik.

- Prensa: ekitaldiaren argazkiak egin ahalko dira.
- Irratiak eta telebistak: Aurkezpenaren zuzeneko soinua hartzeko aukera egongo da (sonido en línea).
- Telebistak: Ekitaldiaren irudiak hartu ahalko dira eta, behar izanez gero, dokumentalaren irudiak bidaliko dira.

Xehetasun guztiak itxi eta ordutegiak adosteko, deitu mesedez behean agertzen den telefonora:

+info eta elkarrizketak:
688 675932
Iñaki Goikoetxea Arrufat
EGK-ko komunikazioa